

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Eskaintzen dugun produktua aipatutako segmentuetara iristeko askotariko komunikazio eta banaketa kanal erabiliko ditugu, alde batetik bezero potentzialek guri eta produktuari buruz gehiago jakin dezaten, eta bestetik ahalik eta modu erosoenean erosleen esku artera iritsi dadin ondasuna.

Lehendabizi, sare sozialak eta webgune bat erabiliko ditugu kontsumitzaileei Solargi ezagutarazteko. Instagram edo Tiktok aplikazioetan edukiak sortu eta partekatuz gure enpresaren izaera zabalduko dugu modu erakargarrian eta influencerrei gure produktua bidaliko diegu audientzia handiagoa izateko. Laburbilduz, sare sozialen bidez nolabaiteko publizitate eta ezagutze lana burutuko dugu eta bertan gure webgunerako sarbidea txertatuta egongo da, non informazio gehigarria modu txukun eta praktikoan eskuragarri izateaz gain zuzenean produktua erosi ahal izango dute bezeroek.

Webguneak hainbat atal izango ditu. Alde batetik informazioa emango dugu guri eta enpresari buruz “Nor gara?” atalean; gure produktuei buruzko argibide zehatzak, xehetasun teknikoak eta banaketa eta erreklamazioen argibideak “Produktuak” atalean; erosketak burutu ahal izateko “Online denda” atala eta erreklamazioak egiteko sekzioa. Online dendarekin gehienbat sare sozialetan jarraitzen gaituen publikoarengana iritsi nahiko genuke, gure edukiak ikusi ondoren zuzenean produkturen bat erosi nahi izango luketenak, bertan baitago norberaren zorroa pertsonalizatzeko aukera, diseinu estandardun zorroez gain. Webgunearen bitartez online egindako erosketetarako banaketa enpresa bat azpikontratatuko dugu produktuak kontsumitzaileen etxeetara modu seguru eta azkarrean iritsi daitezten.

Horrez gain, Fnac etxeko dendetan aurkitu ahal izango dira gure produktuetako batzuk, zorro pertsonalizatuak erosteko aukera gure webgunean soilik egongo denez. Fnac dendetan kontsumitzaileek fisikoki erosi ahal izango dituzte Solargi zorro estandarrak. Hala ere, saldu osteko zerbitzuak gugandik zuzenean jaso ahal izango dituzte, produktuen kaxetan gure erreferentziak adierazita egongo baitira (noski, Fnac-ek eskaintzen dituen saldu osteko ohiko zerbitzuak ere jasoko dituzte bertatik erosten dutenek, baina beti ere gurekin harremanetan jartzea gomendatzen diegu erosleei). Kate hori aukeratu dugu estatu mailan teknologia banatzaile handienetakoa eta ezagunenetakoa izateaz gain fidagarria eta segurua delako. Gainera, oraingoz gure ekoizpena eta salmenta maila estatalean planteatu dugun arren, etorkizunean internazionalizatu nahi izanez gero Fnac-en bidez egin ahal izango genuke, herrialde askotan jarduten duela kontuan izanik.

Hori gutxi balitz, zenbait azoka edo elkargune teknologikoetan batuko da Solargi, zaletuen artean ezagutzera eman eta bide batez produktua salgai ipiniz bertan, kontsumitzaileekin aurrez aurre jardunez.

Zabaldu nahi dugun mezuak enpresa gisa gure nortasunarekin lotura zuzena dauka. Ez gara mugikorrenzako zorroak ekoizten dituen konpainia arrunt bat, eskaintzen duguna haratago doalako. Azken finean bi behar batera asetzen dituzte Solargi zorroek: telefonoa babestea eta energia berriztagarriaren bidez hura kargatzea, inongo kablerik behar izan gabe. Askok ezagutzen ez duten alternatiba bat izateaz gain diseinua eta eskusibitatea ere bezeroaren eskuetan jartzen ditugu, guk proposatutako aukera estandarrez gain zorroa pertsonalizatzea posible baita. Hortaz, helarazi nahi dugun mezua da posible dela mugikorra babestea modu jasangarrian kargatzen den bitartean, diseinu paregabea duten Solargi produktuen bidez.